

ANOETAKO UDALEKO ARMARRIA ALDATU DA.

Anoetako armarrria aldatzeko proposamena 2002ko urriaren 1etik dator. Egun horretan : Kultura batzordeak proposatu zuen batzorde ireki bat sortzea armariaren aldaketaren gaia aztertzeko.

Anoetako lehengo armariari buruzko lehen erreferentziak Anoetako udal dokumentuetako tintazko zigiluetan aurki daitezke, XIX. mende amaierako idazkietan. Armarrria herriko patroia den San Joan Bataiatzailearen errepresentazio sinbolikoa zen, hau da, arkumea. Arkume honek bere hankartean gurutzea eta azpian biblia du, honen bueltan erramua azaltzen delarik.

Armariaren apaingarritzat Espainiar Etxearen koroa zegoen. Aipatu dekorazioa estatuaren zentralizazio eta foruen galtzearen garaian, XIX mendean, bultzatu zen.

Errepublikaren garaian, 1931-37, herritarren berdintasunaren aurkako ziren motibo monarkikoak ezabatuak izan ziren, baina hainbat herritan iraun zuten; haien artean, Anoeta.



Arantzadi Zientzi Elkarteak proposamen berri bat aurkeztu zion Anoetako Udalari 2003ko martxoan, Udalak hala eskatuta. Proposamen honetan beste esanahiak azpimarratzen ziren: kondaira, historia eta natura.

Arantzadi Zientzi Elkarteak aurkeztutako proposamenean Anoeta identifikatzen duten hiru irudi topa daitezke: Kukuak, Basagaingo Burdin Aroko hirixka eta Ori ibaia.

Kukuak herritarrak irudikatu nahi ditu. Aho hizkeran anoetarrak kukuak dira, eta hala dira ezagutuak ondoko herrietan ere, honen arrazoia zera da, inguruan lehenen Anoetan entzuten omen delako kuku hotsa.

Bestalde Basagaingo harresi eta etxeek historia adierazten dute, Anoetako sustraiak. Lehen anoetarrak (duela 2500 urte gutxi gora behera) Basagain mendian kokatu ziren, beraz herrixka honek herriaren sorrera irudikatzen du.

Azkenik Oria ibaiak natura eta geografia fisikoa adierazten ditu. Hau da Anoetan erabateko garrantzia izan duen natur elementua eta herriaren mugak zehazten dituena.

Amaitzeko, aipatzea Udalak behar diren tramiteak egin ondoren, 2004ko otsailaren 13an Gipuzkoako Foru Aldundiak Foru Agindua eman zuela Anoetako udalerriko armari berria onartzen. Martxoaren 5ean argitaratu zen Foru Agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta martxoaren 16an Udal-batzarrak armari berriaren behin-betiko onetsi zuen.